

125

SAN, SANTU, DONE ETA BESTEREN ERABILERA

Santu izendegia onartu ondoren, beharrezkoa ikusten du Euskaltzaindiak izen horiekin joan ohi dena, aurrean edo atzean, arautzea. Gure tradizioa aztertu ondoren, hau da Akademiaren araua:

1. Euskara batuan *San / Santa* erabiltzen dira eskuarki santu izenekin: *Santa Elisabet, Santa Katalina, San Simon, San Frantzisko...* Hau da, beraz, gomendio nagusia.

2. *Done / Dona* ere erabil daitezke, bereziki gure onomastika tradizioan aurkitzen diren honako hauekin¹, hots:

- *Dona: Alodia, Garazi, Julia, Maria, Mariana, Pia.*

- *Done: Agustin, Bartolome, Bikendi, Bladi, Emiliano / Millan, Erroman, Eztebe, Felix, Jakue, Joane, Julio, Jurgi, Justi, Kosme, Kristobal, Laurendi, Leon, Martie, Martzel, Mateo, Meteri, Mikel, Paulo, Pellaio, Petri, Salbatore, Saturdi, Sebastian, Tomas, Zipriano.*

Aipatu izenen kasuan *Done*-ren aurrean *Jaun* ezar daiteke, hitz bakoitza bereiziz: *Jaun Done Petri*.

3. Lapurdin eta Nafarroa Beherean bizirik dauden *Jondoni* eta Zuberoako *Jondane* (hitz batean) erabil daitezke tradizioa halakoa izan denean, hala nola, santu izen hauekin:

- *Jondoni: Batista, Eztebe, Joanes, Laurendi, Murtuts, Paulo, Petri, Salbatore, Saturdi.*

- *Jondane: Joane Batista, Eztebe, Paulo, Petri.*

4. Antzinatik heldu zaizkigun kasu berezi batzuetan *Santi*-dun hagonimoak ere erabil daitezke: *Santi Kurutz, Santi Mami...*

5. Orobat, Kristoren ama aipatzeko hurrengo forma hauek onartzen dira: *Andre Maria* (Hegoaldea), *Andra Maria* (Hegoaldeko erdi-mendebaldea), *Andredena Maria* (Iparraldea), *Andre Dona Maria* (tradiziozkoa).

6. Euskara baturako² euskalkietan dauden aldaeren artean *santu / santa* erabiltzea hobesten da.

7. *Deun / Deuna* ez bitez erabil *San, Santu* edo *Done*-ren orde. Beraz, **Mikel Deuna, *Tiburtzio Deuna* ez dira egokiak; bai ordea, *Done Mikel, San Tiburtzio*.

8. *Santo* ere ez bedi erabil: *San Domingo, San Tomas, San Toribio*³.

9. Leku askotan erabiltzen diren *sanferminak, santakatalinak, sanprudentzioak* eta beste ontzat hartzen dira auzo, herri edo hirietako jaiak adierazteko garaian. Adibideetan ikusten den bezala, letra xehetzidatziko dira honelakoak, eta pluralean deklinatuko.

¹ Segur aski ikerketak aitzina egin ahala orain ezagutzen ez ditugun (*jaun*) *done*-dun eta *dona*-dun hagonimo gehiago kausituko dira. Arrazoi honengatik uste dugu hemen ematen den zerrenda behin betiko ezin dela itxi.

² Ikus Hiztegi Batua.

³ *Santo* duten toki eta herritarren izenetan (*Santo Domingo, santadomingoar*) forma hori ontzat emana da. Ikus 38. araua eta Hiztegi Batua.

10. Idazkerari dagokionez, *San, Santu, Santa, Santi, Done, Jaun Done, Dona, Jondoni, Jondane, Andre, Andra, Andredena* eta *Andre Dona* letra larriz erabiliko dira: *San Martin, Espiritu Santua, Begoñako Andra Maria. Santu, santa* eta *done*, aldiz, izen arruntak direnean, letra xehez emango dira⁴: *santu handia* izan zen *Frantzisko Xabierkoa*; *santa horren mirariak kontatzen ditu liburua*; *Katalina santua oso aipatua* izan zen. Orobat, *santu* eta *done* izenondoak direnean.

Euskaltzaindiak, Bilbon, 2003ko martxoaren 28an onartua.

⁴ Ikus "Letra larrien erabilera euskaraz. Euskaltzaindiaren gomendioak" *Euskeraz*, I, (2.aldia) 36. liburukia, 1991, 85-87.orr.